

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

2432

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 18koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2023rako deialdia.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2023ko maiatzaren 17ko batzarrean hartutako Erabakiaren bidez, onartu egin du Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia, eta, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua m) apartatua xedatutakoarekin bat etorritik, estatutu horiek bigarren aldiz aldatzen dituen abuztuaren 30eko 98/2022 Dekretuak emandako idazkeraren arabera, erakunde autonomo honetako zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Azaldutakoa dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2023rako deialdia. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2023ko maiatzaren 17ko bileran hartutako Erabakiaren bidez onartu zen, eta ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdia onartzeko hartu duen erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 18a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

2023RAKO DEIALDIA, LANERATZEKO ENPRESAK SORTZEKO ETA MANTENTZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO SAILBURUAREN 2009KO MAIATZAREN 4KO AGINDUAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZENA.

2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren bidez (2009ko maiatzaren 26ko EHAA, 98. zk.) laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dira. Laguntza horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak abiarazi zituen, enpresa horiei laguntza emateko, betiere haien ezaugarri eta beharrei egokituta. Horren esparruan, dirulaguntzak aurreikusten dira laneratzeko enpresak sortzea sustatzen duten entitateentzat, bai eta laneratzeko enpresentzat beraienez ere, mantendu daitezkeen.

Aipatutako 2009ko maiatzaren 4ko Aginduaren 17. artikulua berariaz xedatzen du urtero egingo dela bertan aurreikusitako laguntzen deialdia, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak bertan adierazten du aurrekontua zenbatekoa den eta eskabideak aurkezteko epea. Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikuluan xedatzen denez, enpleguari buruzko politika, gaur egun, Lan eta Enplegu Sailari dagokio.

Bestalde, Lan eta Enplegu Sailari atxikitako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoari dagokio, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan enpleguko, enplegurako prestakuntzako eta autoenpleguko eta enpresen sorkuntzako programak kudeatzeko eskumena, indarrean dagoen urriaren 13ko 3/2011 Legean ezarritako moduan. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, 2011ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zenez geroztik, bere gain hartu du laneko legedia betearazteko arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzeko ardura, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan; eta bere gain hartu du, halaber, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak enplegu-politika aktiboaren arloan betetzen zituen eginkizunen kudeaketa. Eginkizun horien artean dago 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntza-programa kudeatzea.

Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bitartez onartutako Lanbideren estatutuen 3. artikuluko b) apartatuan xedatutakoarekin bat etorruta, enplegurako, enplegu-prestakuntzarako, autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzeko programen barruan sartzen da dirulaguntzetarako deialdiak onartzea ere, eta organismo autonomoaren Administrazio Kontseiluari dagokio funtzio hori, halaxe baitago ezarria aipatutako estatutuetako 7. artikuluko f) apartatuan.

Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua- ren aurreikusita daude 2023ko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Plan hori organismo autonomo horren Administrazio Kontseilua onartu zuen, 2022ko abenduaren 21eko bileran hartutako erabakiaren bidez. Horrenbestez, bete egiten da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua. Plan hori Lanbideren webgunean argitaratu zen (www.lanbide.euskadi.eus), «Laguntzak eta dirulaguntzak» atalean.

Era berean, laguntzak kudeatzen dituen organoa aldatu denez, eta publikotasun-printzipioa eta segurtasun juridikoaren printzipioa errespetatze aldera, komenigarria da laguntzak jaso ditzaketen jakinaraztea dirulaguntzak emateko prozeduraren zenbait xehetasun eta betebeharrak, 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitakoarekin bat ez datozenak.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hala proposata, organismo autonomo horren Administrazio Kontseiluak 2023ko maiatzaren 17ko bileran onartu du Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako laguntzen 2023rako deialdia. Agindu horretan arautzen dira laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak. Hona deialdiaren baldintzak:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkezteko epea.

Laguntza hauetarako eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko irailaren 30era arte iraungo du.

Bigarrena.– Diru-baliabideak.

1.– Deialdi honen helburu diren laguntzak finantzatzeko diru-baliabideak honako hauek izango dira: guztira 12.331.000 euro; haietatik, 3.363.500 euro 2023ko ordainketa-kredituari dagozkio, 3.602.000 euro 2024ko konpromiso-kredituari, 3.402.000 euro 2025eko konpromiso-kredituari eta 1.963.500 euro 2026ko konpromiso-kredituari, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoari dagokion 41. sekzioko 3121 programa – Gizarteratzea programakoa, 07–zerbitzuan.

Baliabide horiek 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan aurreikusitako dirulaguntzak estaltzeko erabiliko dira, eta gorago finkatutako 2023ko ordainketa-kreditutik 800.000 euro 7. artikuluan aurreikusitako laguntzetara bideratuko dira.

2.– 2023ko laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatutako zenbatekoa, edo, indarreko legeen arabera aurrekontu-aldaketak onartuz gero, zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena. Eguneratzerik badago, horren berri eman beharko da. 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan araututako laguntzak estaltzeko diru-baliabideei buruzko gainerako aurreikuspenak agindu horren 23. artikuluan daude jasota.

Hirugarrena.– Dirulaguntzak jasotzeko eta emateko baldintzak.

Laguntza horiek jasotzeko eta emateko baldintzak 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan daude azalduta.

Halaber, aplikatzekoa da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan xedatutakoa (Enpresak sortu eta handitzeari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legeak sartutako apartatua). Horren arabera, 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, onuradun izateko, erakundea egunean egongo da, ordainketa-epeak beteta (Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitakoak).

Hori horrela dela ziurtatzeko, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute galdu-irabazien kontu laburtuak aurkeztu ditzaketen sozietateek. Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribaturiko auditore batek egindako egiaztagiria aurkeztu beharko dute gainerakoek.

Laugarrena.– Laguntzen prozedura, izapideak eta ebazpena, eta onuradunen betebeharrak.

Deialdiaren kudeaketa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan eskatutakoaren arabera izapidetu behar denez, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartu duenez laguntzen kudeaketa, 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan jasotako arauak aldaketa hauek izan dituzte:

1.– Dirulaguntzen eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira. Egoitza horretara helbide honetatik sartu ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/sede>; Lanbideren web-orrian izango da bertara sartzeko esteka bat.

Laneratzeko enpresak sortzeko prozeduraren jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak, ereduak eta eskabide-inprimakia helbide honetan egongo dira eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/0136911>

Laneratzeko enpresak mantentzeko prozeduraren jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak, ereduak eta eskabide-inprimakia helbide honetan egongo dira eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/0136912>

Eskabidea aurkeztu eta geroko izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Era berean, kasu bietan, eskabidea elektronikoki izapidetu ahal izango da ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkari-tza inskribatu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak eskuragarri egongo dira helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazioen eta Gizarteratzearen zuzendaria izango da deialdi honetan araututako laguntzen eskabideak kudeatzeko eta izapidetzeko organo eskuduna.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazioen eta Gizarteratzearen zuzendariaren berariazko ebazpen indibidualizatuaren bidez eman edo ukatuko dira deialdi honetan aurreikusitako laguntzak. Ukatzeko ebazpen hori arrazoitua izango da, eta berariaz jasoko du eskaera ukatzeko arrazoia.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazioen eta Gizarteratzearen zuzendariaren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Eskabideak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie laguntzak deialdian aurreikusitako betekizunak eta baldintzak betetzen dituztenei, hariak eta aurrekontu-zuzkidura agortu arte. Kreditu-handitzeak alde batera utzita, aurrekontu-zuzkidura agortu ondoren, geratzen diren eskabideei dirulaguntzak ukatuko zaizkie, eta horren berri emango da EHAAn, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestazioen eta Gizarteratzearen zuzendariaren ebazpen baten bidez.

5.– Entitate onuradunek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinarazi beharko diote diruz lagundutako jardueren izaera edo helburua funtsean aldatzen duen gorabehera oro; eta, bestalde, organismo autonomo horrekin kolaboratu beharko dute aipatutako jarduerak egiaztatzeke, ikuskatzeko eta jarraipena eta kontrola egiteko.

6.– Dirulaguntza jasotzen duten eta hedatu, zabaldu eta, hala badagokio, argitaratzen diren jarduera guztietan, berariaz adierazi beharko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak babestuta daudela.

7.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, entitate eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Entitatea erregistratuta ez badago edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du, helbide honetan ezarritako ereduaren arabera: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>